

UDAL HILERRIAREN TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2020. URTEA

OINARRIA ETA IZAERA

Lehen artikulua.- Konstituzioaren 133.2 eta 142. art.etan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. art.ak emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udala zerga ordenantza honek eraenduko duen udal auzibidearen tasa ezarriko du; ordenantza horretako arauak arestian aipatutako Foru Arauan ohartemandakoari erantzungo diote.

ZERGA EGITATEA

2. artikulua.- Tasaren zerga egitateak izango da Udal Hilerriko zerbitzuak ematea, esaterako honakoak: hilobiratze gunen esleipena, harrilobi eta hilobiak eraikitze baimenak, harrilobi eta hilobi horien atzemateak, txikipena, harlanak mugitzea, harlanak jartzea, burdinsare eta edergailuak, hildakoen atsedenerako guneen mantenimendua, eta Hil-Osasun Poliziari buruzko Araudian agindutakoarekin bat etorriz egokiak diren edo alderdiak eskaturik baimentzen diren beste edozein zerbitzu.

SUJEKTU PASIBOA

3. artikulua.- Zergadun subjektu pasiboak baimena eskatzen dutenak edo zerbitzugintza eskatzen dutenak dira eta, hala denean, emandako baimenaren titularrak.

ERANTZULEAK

4. artikulua.1.- Subjektu pasiboaren zergak ordaintzeko betebeharrei Zergei buruzko Foru Arauaren 41. art.Ak aipatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek erantzungo dizkiete solidario gisa.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

SALBUESPEN SUBJEKTIBOAK

5. artikulua.- Salbuetsirik daude honako zerbitzuak:

- a) Udal Egoitzan edo udalerriko gizarte izaerako beste egoitza batzuetan dauden pertsonen lur ematea, baldin eta gorpua eramatea establezimenduak berak egiaztatzen badu, eta hildakoaren senideek ordaindu beharko luketen ehorzketarik ez bada egingo.

b) Oinarrizko errenta jasotzen duten familietako kide direnen (edo laguntza hori jasotzeko egoeran daudenen) gorpuei lur ematea.

ZERGA KUOTA

6. artikulua.- Zerga kuota zehazteko honako TARIFA ezarriko da:

A) EMAKIDAK

Harrilobi berria	16.332,20 euro
Harrilobi zaharra (orubea bakarrik) m2	1.362,80 euro
Hilobiak	1.914,40 euro
1988 baino lehen adjudikatutako nitxoak	621,90 euro
Nitxoak alogeran	324,50 euro
Nitxo-hezurtegiak	162,20 euro

B) HILOBIRATZEKO ESKUBIDEAK

Harrilobian hilobiratzea	108,20 euro
Hilobietan hilobiratzea	75,70 euro
Nitxoetan hilobiratzea	49,70 euro
Norbanakoen eskariz hilobi arruntean hilobiratzea	36,80 euro
Norberaren arioz hilobi arruntean hilobiratzea	0,00 euro
Errautsak edo gorpuzkinak panteoian, hobian edo nitxoan ehorztea	49,70 euro

C) DESEHORZKETA ETA LEKUALDAKETAK

Gorpua txikiagotu aldatu gabe	73,50 euro
Desehortzi aldatuta	73,50 euro
Nitxoaren alokairuko epea amaituta	0,00 euro

7. artikulua. 1.- Nitxoak errentamenduan baino ez dira emango 10 urteko gehieneko epearekin.

2.- Hilobi eta hezurtegien salmentak eta nitxo alogerak pertsonaren heriotza gertatzen den unean emango dira.

3.- Nitxoen errentamenduko 10 urteko epealdian zehar giza-hondarrak kendu eta beste ehorzketa bat gertatuko balitz hamar urteko errentamendu tasa berria kobratuko litzateke eskabide unean indarrean dagoen tarifaren eredura, dena den, tarifa horretatik lehen hamar urteak betetzeko falta diren urte osoak kenduko dira eta aurreko errentamenduan ordaindutako tasaren arabera

8. artikulua.- 1988 baino lehen adjudikatutako nitxoak, hobiak eta orubeak herentzia edo ondorengotza titulupean transmititu ahal izango dira. Baldintza horren ezean, kontratua deuseztatuko da, eta emakida, eta harekin batera kasuan kasu eraikitakoa, Udalaren esku geratuko da.

9. artikulua.- Transmititu daitezkeen emakiden titularrek, haietaz gozatzen jarraitzeko interesik ez badute, haiek Udalari itzuli ahal izango dizkiete, eta azken horrek, kalte-ordain moduan, itzulketaren unean indarrean dagoen ordenantzak ezarritako balioaren % 75 ordainduko die, baina ez die ezer ere ordainduko eraikitako apaindura edo gainerakoengatik.

10. artikulua.- Laugarren graduko ahaideen artean jaraunspen edo oinordetza gisa ematen diren Udal Hilerriko hilobi, nitxo eta orubeen eskualdaketek emakidak duen balioaren %4ren tasa baliokidea sortuko dute, emakida unean indarrean den zerga Ordenantzaren arabera

SORTZAPENA

11. artikulua.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra jaioko da kargapeko zerbitzuak egiten hasten direnean; ondore horietarako, Zerbitzuen eskabidearekin batera gertatuko da.

AITORPENA, LIKIDAZIOA ETA SARRERA

12. artikulua.- 1.- Subjektu pasiboek kasuan kasuko zerbitzuen eskabidea egingo dute.

2.- Zerbitzuak banan-banan eta autonomoki likidatuko dira; zerbitzua egin ondoren jakinaraziko zaio likidazioa zuzenean Udal Kutxan sartu dezan Zergabilketa Foru Araudian adierazitako era eta epeetan

URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

13. arikulua.- Zerga urratzeen kalifikazioari dagokion guztia eta kasuan kasuko zehapenei dagokien guztia Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183 eta ondorengo art.etan xedatutakoari lotuko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantzaren oraingo testua 1989ko irailaren 29ko Udalaren Osoko bilkurak onartu zuen eta 1990eko azaroaren 30eko, 1991ko abenduaren 20ko, 1992ko abenduaren 27ko, 1993ko azaroaren 26ko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko, 1997ko abenduaren 19ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28ko, 2003ko azaroaren 28ko, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, osoko bilkuren erabakiz aldarazia izan zen; Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Ordenantzak ondoreak ekarriko ditu 2007ko urtarrilaren 1etik eta indarrean iraungo du ordenantzaren aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.